

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2024ko urriaren 15eko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

Zerga premiazko araugintzako dekretuak:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2024 Zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Arabako zerga araudia egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketetara.

Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 576/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko kideak berritzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 577/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea telekomunikazio zerbitzua emateko indarrean dauden kontratuei eusteari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 578/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Behin betiko onespena ematea Zalduekiko udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 579/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko "Arkitektura garaikidearen diagnostikoa" partida, 2025. urtean, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 580/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko "EGEF bizikleta bideak" partida, 2025. urtean, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 581/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, doikuntzak egiteko Manzanosko trenbide pasaguneak kentzeko proiektuko gastuen eta diru sarreraren partidetako aurrekontu esleipenean, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 582/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea M_T00/2024/000000109 kreditu transferentziaren espedienteari, 38.000,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Euskaltzaindia: jarduera" partida, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 583/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea M_T00/2024/000000108 kreditu transferentziaren espedienteari, 3.485,14 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "CEIA (BIC ARABA): finantza ekarpena" partida, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 584/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Enpresa erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordaina", "Eskola Kiroleko garraioaren esparru akordioa" eta "Nekazaritza eta ingurumen neurriak" partidak, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak, Kultura eta Kirol Sailak eta Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 585/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Araba Garapen Agentzia SArentzako ekarpena egiteari, Arabako Parke Teknologikoaren kapital sozialaren gehikuntzan parte har dezan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 586/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko laguntzak emateari, zeinetarako deia Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 810/2023 Erabakiaren bidez egin baitzen (Araba Innova - Digitaliza 2024 - Autonomoak).

Foru Gobernu Kontseiluaren 587/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko laguntzak emateari, zeinetarako deia Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 810/2023 Erabakiaren bidez egin baitzen (Araba Innova - Digitaliza 2024 - Elkarteak).

Foru Gobernu Kontseiluaren 588/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko laguntzak emateari, zeinetarako deia Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 810/2023 Erabakiaren bidez egin baitzen (Araba Innova - Digitaliza 2024 - Enpresak).

Foru Gobernu Kontseiluaren 589/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari obra hidraulikoen arloan ingeniartzako laguntza teknikoa emateko zerbitzuaren kontratuaren bigarren luzapena aldatzeari (2. sorta- saneamendua).

Foru Gobernu Kontseiluaren 590/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Nerbioiko Parke Linealeko bide berdearen gauzatze proiektuari, Saratxo-Mesones (Amurrio) tartean, bai eta haren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrendari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 591/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duen foru arau proiektuari, otsoa eta abeltzaintza estentsiboa elkarrekin bizitzearen aldeko neurriak ezartzeko.

LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 592/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Elisa Irazu Mayayo izendatzeari Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargu gisa.